

## GILTZARRIAK – 64 (maiatza, 2018)

### TESTUA:

**GALILEA, ILBERRIA** (Markos 16, 1-8)



Komunitatean Markosen  
eskuizkribuzko azken pasartea irakurri ondoren, emakumeek entzundako hitzak ekarri zituzten gogora:

“Ez izan beldur. Jesus Nazaretarraren, Gurutziltzatuaren, bila zabilzate. Piztu da, ez dago hemen. Ikusi non jarri zuten, baina esaiezue dizipuluei eta Pedrori haien aurretik joango dela Galileara. Han ikusiko dute, esan zien bezala.”

Jesusen Pazkoa ospatzen ari ziren eta, azkenean, alaitasunez errexitatu zituzten 81. salmoko hitzak:

“Egin poz-oihu Jainkoari, gure indarrari, egin irrintzi Jakobean Jainkoari! Ekin soinuari, jo danbolina, kitara gozoa eta harpa. Jo turuta ilargi berrian, eta ilargi beteko jaiegunean.”

Denak harrituta gelditu ziren zer-nolako indarrez hitz egin zuen Tiziak:

-Ez genuke salmo honekin errezatzen jarraitu behar, egia ez den zerbait baiesten baitu: ilberria oraintxe bertan ez da gure festa.

Paganismotik etorritako hura nola ausartzen zen Israelgo otoitz bat dudan jartzen?

Emakumea isilarazten saiatu ziren, baina berak jarraitu zuen:

-Ezagutzen ditut juduen tradizioak eta errespetatu egiten dut zuen jaietako diezuen estimua, baina ezin dizkiguzue inposatu, gure fedearen erdigune bakar gisa piztutako Jesus Jauna dugunoi. Gure artean asko hitz egin dugu emakumeak hilobira Jesusen gorputza gantzutzeroa joan zireneko pasarteaz; eta nola sentitu behar zuten berritasun handi hark gainezka egiten ziela. Ohitura bati jarraituz joan ziren, eta egitera zihoazena egokia eta zuzena zen, baina ezer ez zen gertatu haiek espero zuten bezala. Goiz jaiki izan arren, eguzkiak aurre hartu zien; nola mugituko zuten harria galdetzen zioten beren buruari, eta harria kenduta zegoen; hilotz bat gantzutzeko perfumeak zeramatzen, baina tokia hutsik zegoen; gurutziltzatu baten bila joan ziren, eta Bizirik zegoen baten aldarrikapena egin zioten. Inork ez zituen onartu beren eskuetako perfumeak: aldatu egin zizkieten ordura arte isilik egondako ahotsez aldarrikatu behar zuten misioaren truke. Toki itxia toki irekia bihurtu zen; haiek utzi egin behar zuten toki itxi hura eta ez zuten hara itzuli behar: Jesus Galilean egongo zen bere dizipuluen aurretik joanda. Hitz bat jaso zuten gorpu baten truke; aurrerantzean ezingo zuten lehengo toki berberetara itzuli. Beren gaitasunak gainditzen zituen gertakari bati aurre egin beharrean zeuden. Horregatik erreazionatu zuten laborriak eta harridurak



hartuta, Pedro, Santiago eta Joan bezala Jesus mendian haien aurrean antzaldatu zenean bezala; dizipuluak bezala, lakuan izandako ekaitzaren ondoren, edo Jairoren alaba zutitzen ikusi zutenen modura.

Gaur Jaun piztuaren dizipulu eta jarraitzaile garenok, haiek entzundako iragarpen berbera entzun dugu: "Jesus gurutziltzatua zutik dago eta zuen aurretik joango da Galileara." Dei honi erantzun beharrean gaude eta ezin dugu jarraitu ilberrien, erritoen, jai eta ohitura zaharren mende. Horregatik guzti horrek ez dauka gure bizitzaren erritmoa markatzeko indarrik, ezta gure fedean hutsik gelditu behar duten espazioak betetzeko gaitasunik ere.



Jesus piztu dela sinestea gehiegizko absolutua da, eta beste ezerk ezin du bete bere tokia, ezta beste ziurtasunik eman ere. Garai batean gure jarduerari eraginkortasun segurua ematen zioten perfumeen eskutik ibiltzen ginen: orain, ordea, perfume horiek hilobi hutsaren ondoan gelditu dira, eta gure fedearikiko atxikimendua da bizirik mantentzeko indarra ematen diguna. Ez dugu ilargirik behar gure urratsak norabidetzeko; Jaun piztua da Galileara gure aurretik joan zaiguna.

#### **GALDERAK:**

**Hau da nire historia.** Pazkoak izen berri batekin bataiatzen nau: "aurea hartu dioten" bat naiz, eta bizitzan Jesusekin batera ibiltzearen ziurtasuna daukat, bera nire aurretik baitoa. Berak eusten dio nire fedeari eta berak ematen dit heriotza (bera eta nirea) behin-betiko gaingitu izanaren ziurtasun sakona.

**Partekatu egiten dugu gure fedea.** Dinamika bikoitz batek hartuta dauka kristau bizitza: alde batetik herioaren mehatxua dago; bestetik, pentsaezinezko bizitza baten aukera. Fedeak Jaun gurutziltzatuaren eta piztuaren pazkoko dinamikaren partaide egiten gaitu. "Kredo" bat idatz dezakegu, gure hitzetan parte-hartze zoragarri hori adieraziko duena.

#### **BERRI ONA:**

##### **Markos 16,1-8:**

Larunbata igaro zenean, Magdalako Mariak, Maria Santiagoren amak eta Salomek usain gozoko ukenduak erosi zituzten, Jesusen gorpua gantzutzeko. Eta asteko lehen egunean, goizean goiz, eguzkia atera orduko, hilobira joan ziren. Honela ari ziren beren artean: «Nork kenduko digu hilobi-sarrerako harria?» Begiratu eta harria alboratua zegoela ohartu ziren, oso astuna zen arren. Hilobian sarturik, gazte bat ikusi zuten eskuinaldean eseria, soineko zuriz jantzia, eta erabat izutu ziren. Baina hark esan zien: «Ez izutu! Nazaretoko Jesus gurutziltzatuaren bila zabiltzate. Piztua da, ez dago hemen.

Ikusi jarri zuteneko tokia. Zoazte, bada, haren ikasleei, eta Pedrori bereziki, esatera: “Zuen aurretik joango da Galileara; han ikusiko duzue, berak esan bezala” ». Emakumeek hilobitik ihesi alde egin zuten, sartu zitzaizen izu eta ikaraz; eta, beldurraren beldurrez, ez zioten inori ezer esan.



### **OTOITZA: BERPIZTUAGAN SINESTEA**

Berpiztuagan sinestea, gure bizitza bi hutsuneren arteko parentesi labur bat besterik ez dela, onartu nahi ez izatea da. Jainkoak berpiztu duen Jesus sostengutzat hartuz, sumatzen dugu, desiratzen dugu eta sinesten dugu Jainkoa bere betera bideratzen ari dela Gizadiaren bihotzak eta kreaio osoak duen biziaren, zuzentasunaren eta bakearen irrika.

Berpiztuagan sinestea, bizitza honetan miseria, umilazioa eta sufrimendua bakarrik ezagutu duen gizon-emakume eta haur-multzo kontaezineko hori, betiko ahaztua geldituko den ustearen kontra jaikitzea da geure indar guztiz.

Berpiztuagan sinestea, jada pobreziarik eta oinazerik izango ez den bizitza batean konfiantza jartzea da, zeinetan inor ez den triste izango, eta inork ez duen negarrik egingo. Azkenean ikusi ahal izango ditugu beren egiazko aberrira iristen patera koxkorretan datozenak.

Berpiztuagan sinestea, hainbat eta hainbat osasunik gabekoengana esperantzaz hurbiltzea da, gaixo kroniko, ezindu fisiko eta psikikoengana, depresioak jotako, bizitzeaz eta borroka egiteaz nekatutakoengana. Egun batean ezagutuko dute zer den bakean eta osasun betean bizitzea. Entzungo dituzte Aitaren hitz hauek: «Sar zaitetz betiko zeure Jaunaren gozamenean».

Berpiztuagan sinestea, Jainkoa betiko «ezkutuko Jainkoa» izango dela ez onartzea da, haren begiradaz, haren txeraz, haren besarkadaz ezin izango dugula gozatu, ez onartzea. Betirako aintzatsu haragiturik aurkituko dugu Jesusengan.


Berpiztuagan sinestea, konfiantza izatea da mundua gizatasun handiagoko eta zoriontsuago bihurtzeko egin ditugun ahaleginak ez direla hutsean galduko. Egun zoriontsu batean, azkenak lehenengo izango dira eta prostitutek aurea hartuko digute Erreinuan.

Berpiztuagan sinestea, jakitea da hemen erdizka gelditu den guztiak, ezinezko gertatu den orok, geure trakeskeriaz edo bekatuaz hondatu izan dugunak, guztiak

lortuko duela Jainkoagan bere betearen betea. Ez da galduko maitasunez bizi izan dugunetik ezer edo maitasunez uko egin izan diogunetik ezer.

Berpiztuagan sinestea, espero izatea da antzaldatuko direla ordu pozgarriak eta esperientzia garratzak, pertsonengan eta gauzetan utzi izan ditugun «aztarna» guztiak, eraiki dugun edo eskuzabalez gozatu dugun guztia. Jada ez dugu ezagutuko bukatzen den adiskidetasunik, amaitzen den festarik, tristura dakarren agurrik. Jainkoa izango da dena denetan.

Berpiztuagan sinestea, egun batean Apokalipsi liburuak Jainkoaren ahoan jarri dituen sinetsi ezinezko hitz hauek entzungo digula sinestea da: «Neu naiz gauza guztien hasiera eta azkena. Egarririk denari neuk emango diot doan biziaren uraren iturritik». Jada ez da izango ez heriotzarik ez lanturik, ez garrasirik ez nekerik, iraganeko gauza izango da hori guztia.



*(Jose Antonio Pagola)*